

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2006KO OTSAILAREN BEDERATZIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZ OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko otsailaren bederatzian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ez ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 1. ALDAKETA PUNTUALAREN –12. HIRIGINTZA AREARI (TORREAGA) ETA 1. SEKTOREARI (PUNTANUETA) BURUZKOA– IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Bilkura eratu eta urte berri on opa ondoren, alkate-presidente andreak ez ohiko bilkura deitu izanaren arrazoiak azaldu ditu.

Gaia presazkoa da, saihesbidearen lanak laster hasiko direlako eta 12. HAko 12.2 EUko (Torreaga) lur-sail batzuk eskura izan behar direlako errotondaren loturei konponbide egokia emateko. Horrek planeamendutresnen eta lurraren kudeaketaren izapideetan aurrera egitea eskatzen du.

Egindako jardueren berri eman du:

2004-11-17 data duen 264/04 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez jendaurrean ikusgai jarri zen Zumaiako planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketaren AURRERAPENAREN dokumentua, 12. HARI (Torreaga) eta 1. sektoreari (Puntanueta II) buruzkoa, 30 egunean udalbatzek, elkarteek eta partikularrek iradokizunak egiteko, edota, hala badagokio, planeamenduko beste alternatiba batzuk aurkezteko.

José Sáez de Argandoña Zatarain jaunak, "PROMOCIONES TORREAGA SL"-ren ordezkari gisa, iradokizun-idazkia aurkeztu dio aurrerapen-dokumentuari.

Fitxa egokitzeko eskatu du, udal-zerbitzu teknikoek saihesbide berriko 12.2 EU pareko errotondarako planteatutako konponbidea hobetzeko.

Iradokizuna eta proposatutako hirigintza-fitxa aztertu ondoren, udal-zerbitzu teknikoek partzialki onartzea proposatu dute. Salbuespena lokalen, garajeen, trastelekuen, merkataritza-lokalen eta etxebizitzien irabazizko onuren doikuntzak sortzen du.

Udalaren txosten teknikoaren arabera, irizpide eta helburu orokor hauek finkatzea proposatzen da:

ZUMAIAKO UDALA
HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA
TXOSTEN TEKNIKOA, zbkia. 09/06

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA:

PLANGINTZA: ZUMAIAKO PLANGINTZARAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 1.

ALDAKETA

KOKAPENA: LURZATIA: TORREAGA-PUNTANUETA

AREA: 12. HA-1. SEKTOREA

FASEA: HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA

ERAGILEA: ZUMAIAKO UDALA

TALDE EGILEA: LUCIANO PAGAEGI / JONE CALZACORTA

ONIRITZIAREN DATA:

SARRERA ERREGISTROKO DATA:

TXOSTENAREN DATA: 16/01/0

1.-AURREKARIAK/ANTECEDENTES.

- Hirigintza-esparrua: - Zumaiaiko planeamenduko arau subsidiarioak (04-02-17)
- Aldaketaren aurrerapena (04ko abendua)
 - 2005eko abenduaren 19ko aurrepenari Promociones Torreaga SLk (garaiz kanpo) egindako iradokizuna eta, ondoren, udal-zerbitzu teknikoek adierazitakoari jarraituz egindako zuzenketa.

2.-IRUZKINAK/COMENTARIOS.

Zumaiaiko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa idatzi da, Lurzoruaren Legearen planeamenduko araudiaren (2159/1978 ED) 154.2 eta 154.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, udaleko hirigintza-arauetako 04.3 artikuluan jasotzen den moduan.

Espediente honetan hiru aldaketa egin dira.

LEHENA. Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Batzordearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintzako Departamentuarekin izandako elkarrizketei jarraiki, ondorioztatzen da administrazio-erakunde guztien ardura dela ezarrita dauden enpresak eta jardura ekonomikoak lekualdatzeko zailtasunak eta hiri-transformazioko lan konplexu horien bideragarritasuna erraztea. Horregatik, aintzat hartu beharreko aldaketa uztailearen 17ko babes ofizialeko etxebizitzetarako buruzko 42/1997 dekretuko 6. b) eta 6. c) artikuluetan ezarritakoa dela adierazten dute. Dekretu horrek babes ofizialeko etxebizitzak lekualdatzeko baimena lortzeko eskaerak egiteko prozedura azaltzen du, eremu batean (12.2 EU) etxebizitza kopurua murriztu eta beste batean (1. sektorea) handitu edo kokatzeko.

Dena den, aldi berean eraikiko dira sektore bateko babes ofizialeko etxebizitzak eta beste sektoreko etxebizitza libreak.

BIGARRENA.-Une berean, toki horretan Zumaiaiko Saihesbidea Egiteko Proiektua ezagutu eta aurkeztu da. Horri esker, udal-zerbitzu teknikoek proiektua aztertzeko, alternatiba ikertzeko eta Errepide eta Garraio Departamentuan aurkezteko aukera izan dute, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriagoa eta inpaktua txikiagoa dela uste baitute, bai ikusizkoa, bai paisaiari dagokionez, bai eta zaratari dagokionez ere. Eremuko hirigintza-kudeaketatik lagapeneko lur-sailak "atxikitzea" eskatzen du horrek, eta Zumaiaiko Udalak Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Departamentuaren esku uztea lur-sail horiek. Horretarako, eremua berrantolatu eta bizitegi-aprobetxamenduari eutsi, merkataritza-aprobetxamendua eta beheko solairuko ataripeen aprobetxamendua doitu eta garajeena zuzendu behar da. Gainera, txikitu egingo dira ibaira bitarteko distantzia (60 metro izan beharrez, 35 metro) eta aparkalekuena (200 metro izan beharrez, 90 metro), teilatupedun eraikin atzeraemanean gehienezko profila pixka bat aldatuko da (S + ES + BS + 6 + TP izan beharrez, S + ES + BS + 7 izango da) eta espazio libre gehiago izango da, 4.500 m²-ren ordez 7.652 m² izango dira (horietatik 3.060 m², gutxi gorabehera, saihesbiderako izango dira); horrez gain, lur gainean erabilera publikoko zortasuna duen 3.915 m² inguruko guneko pribatua egongo da.

HIRUGARRENA.- Arau subsidiarioen aldaketaren aukeraz baliatzea, hirigintza-ordenantzetako 34.3 artikulua zehaztapena osatzeko, babes ofizialeko etxebizitzaren estandarren % 20 aplikatuz etxebizitzaren gehikuntzaren % 20ari. Hirigintza-fitxan adierazitako etxebizitza kopurua 50ekoa edo gehiagokoa den exekuzio-unitateetan aplikatuko litzateke hori.

Aurkako hitzarmenik izan ezean, etxebizitza horiek exekuzio-unitatearen barruan egin beharko lirateke.

Horregatik guztiatik, eta Zumaiaiko arau subsidiarioen 1. aldaketa komenigarria eta egokia dela finkatuta, formulazioan (LLPEren 161. art.) erabilitako xedapen berak izan beharko ditu, LLPEko

(2159/1978 ED) 126. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitako prozedurari jarraituz. Eta horri hasierako onarpena eman eta dagokion jendaurreko erakusketa egingo da.

3.-ONDORIOAK /CONCLUSIONES.

Aldeko txostena.

Alabaina, udal interesentzat egokiena irizten duena erabakiko du udalbatzak.

ZUMAIAN, 2006KO URTARRILAREN 16AN. -LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

IZUSTARRIko bozeramaileak eskatu du gai-zerrendarekin batera dagokion dokumentazioa bana dadila, bileran irizpidea argi eta garbi izateko.

Etxebizitzen kopurua % 20 gehitzetik ateratzen diren babes ofizialeko bederatzi etxebizitzetarako buruzko argibideak eskatu ditu. Esparruan bertan egingo diren edo lekualdatu egingo diren, alegia.

Alkate andreak erantzun du Hirigintza Batzordean behin eta berriz errepikatu dela gai hori. Eta nahi duen edonork bere esku duela Idazkaritzan bileretako dokumentazioa.

Gehikuntzatik sortzen diren babes ofizialeko etxebizitzetarako dagokienez, txostenak dio eremu berean eraikiko direla, hitzarmenik izan ezean.

Ondoren, bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 13

Aldeko botoak: 7 (PNV, 5; PSOE, 2).

Aurkako botoak: 1, EB-Berdeak.

Abstentzioak: 5 (IZUSTARRI, 3; EA, 2).

ERABAKI DUTE:

1. José Sáez de Argandoña Zatarain jaunak, "PROMOCIONES TORREAGA SL"-ren izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako iradokizuna

partzialki onartzea, erabaki honen azalpenezko zatian azaldutakoari jarraituz.

2. ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LEHENENGO ALDAKETAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK onartzea, 12. HA (12.2 EU) TORREAGAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (PUNTANUETA II) LEKUALDATZEARI, 12.2 EUko (TORREAGA) BERRORDENAKETARI ETA HIRIGINTZA ARAUEN 34.3 ARTIKULUAREN ZEHAZTAPENEI BURUZKOAK, udal-teknikariaren txostenean adierazitakori jarraituz (akordioaren azalpenezko zatian idatzita jasota daude).

2.- ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1. ALDAKETA PUNTUALARI, 12. HA (TORREAGA) ETA 1. SEKTOREARI (PUNTANUETA) BURUZKOARI, HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.-

Irizpide eta helburu orokorrak onartu ondoren, dokumentuari hasierako onarpena eman behar zaio, aurreko erabakian jasotako txosten teknikoa oinarri hartuta. Hona hemen erabakia:

ZUMAIAKO UDALA HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA TXOSTEN TEKNIKOA, zbkia. 09/06

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA:

PLANGINTZA: ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 1.

ALDAKETA

KOKAPENA: LURZATIA: TORREAGA-PUNTANUETA

AREA: 12. HA-1. SEKTOREA

FASEA: HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA

ERAGILEA: ZUMAIAKO UDALA

TALDE EGILEA: LUCIANO PAGAEGI / JONE CALZACORTA

ONIRITZIAREN DATA:

SARRERA ERREGISTROKO DATA:

TXOSTENAREN DATA: 16/01/0

1.-AURREKARIAK/ANTECEDENTES.

Hirigintza-esparrua: - Zumaiako planeamenduko arau subsidiarioak (04-02-17)
- Aldaketaren aurrerapena (04ko abendua)
- 2005eko abenduaren 19ko aurrepenari Promociones Torreaga SLk (garaiz kanpo) egindako iradokizuna eta, ondoren, udal-zerbitzu teknikoek adierazitakoari jarraituz egindako zuzenketa.

2.-IRUZKINAK/COMENTARIOS.

Zumaiako planeamenduko arau subsidiarioetako 1. aldaketa idatzi da, Lurzoruaren Legearen planeamenduko araudiaren (2159/1978 ED) 154.2 eta 154.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, udaleko hirigintza-arauetako 04.3 artikuluan jasotzen den moduan.

Espediente honetan hiru aldaketa egiten dira.

LEHENA. Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Batzordearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintzako Departamentuarekin izandako elkarrizketei jarraiki, ondorioztatzen da administrazio-erakunde guztien ardura dela ezarrita dauden enpresak eta jarduera ekonomikoak lekualdatzeko zailtasunak eta hiri-transformazioko lan konplexu horien bideragarritasuna erraztea. Horregatik, aintzat hartu beharreko aldaketa uztailaren 17ko babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko 42/1997 dekretuko 6. b) eta 6. c) artikuluetan ezarritakoa dela adierazten dute. Dekretu horrek babes ofizialeko etxebizitzak lekualdatzeko baimena lortzeko eskaerak egiteko prozedura azaltzen du, eremu batean (12.2 EU) etxebizitza kopurua murriztu eta beste batean (1. sektorea) handitu edo kokatzeko.

Dena den, aldi berean eraikiko dira sektore bateko etxebizitza libreak eta beste sektoreko babes ofizialeko etxebizitzak.

BIGARRENA.-Une berean, toki horretan Zumaiako Saihesbidea Egiteko Proiektua ezagutu eta aurkeztu da. Horri esker, udal-zerbitzu teknikoek proiektua aztertzeko, alternatiba ikertzeko eta Errepide Departamentuan aurkezteko aukera izan dute, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriagoa, eta inpaktua txikiagoa dela uste baitute, bai ikusizkoa, bai paisaiari dagokionez, bai eta zaratari dagokionez ere. Eremuko hirigintza-kudeaketatik lagapeneko lur-sailak "atxikitzea" eskatzen du horrek, eta Zumaiako Udalak Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Departamentuaren esku uztea lur-sail horiek. Horretarako, eremua berrantolatu eta bizitegi-aprobetxamenduari eutsi, merkataritza-aprobetxamendua eta beheko solairuko ataripeen aprobetxamendua doitu eta garajeena zuzendu behar da. Gainera, txikitu egingo dira ibaira bitarteko distantzia (60 metro izan beharrez, 35 metro) eta aparkalekuena (200 metro izan beharrez, 90 metro), teilatupedun eraikin atzeraemanean gehienezko profila pixka bat aldatuko da (S + ES + BS + 6 + TP izan beharrez, S + ES + BS + 7 izango da) eta espazio libre gehiago izango da, 4.500 m²-ren ordez 7.652 m² izango dira (horietatik 3.060 m², gutxi gorabehera, saihsbiderako izango dira); horrez gain, lur gainean erabilera publikoko zortasuna duen 3.915 m² inguruko gune pribatua egingo da.

HIRUGARRENA.- Arau subsidiarioen aldaketaren aukeraz baliatzea, hirigintza-ordenantzetako 34.3 artikuluan zehaztapena osatzeko, babes ofizialeko etxebizitzaren estandarren % 20 aplikatuz etxebizitzaren gehikuntzaren % 20ari. Hirigintza-fitxan adierazitako etxebizitza kopurua 50ekoa edo gehiagokoa den exekuzio-unitateetan aplikatuko litzateke hori.

Aurkako hitzarmenik izan ezean, etxebizitza horiek exekuzio-unitatearen barruan egin beharko lirateke.

Horregatik guztiagatik, eta Zumaiako arau subsidiarioen 1. aldaketa komenigarria eta egokia dela finkatuta, formulazioan (LLPEren 161. art.) erabilitako xedapen berak izan beharko ditu, LLPEko (2159/1978 ED) 126. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitako prozedurari jarraituz. Eta horri hasierako onarpena eman eta dagokion jendaurreko erakusketa egingo da.

3.-ONDORIOAK/CONCLUSIONES.

Aldeko txostena.

Alabaina, udal interesentzat egokiena irizten duena erabakiko du udalbatzak.

ZUMAIAN, 2006KO URTARRILAREN 16AN. -LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

IZUSTARRIK, zergatik abstenitu den azaltzeko, testu hau irakurri du.

TORREAGA

Orain dela urtebete, ezustean, Torreaga zegoen lekutik ateratzeko aukera sortu zen. Aukera konplexua, baina gure ustez pasatzen utzi behar ez zen aukera.

Egoera berezia zen, Lurraren Legea onartzearen omen zegoen, eta horrek ere, presioa sartzen zigun. Gauzak ondo eta azkar egin behar ziren. Alde onak eta alde txarrak zituen hitzarmen bat prestatu zen, eta guk orduan gure aldeko bozka eman genuen.

Irizpide batzuk argi izanagatik, gauzak batzuetan ordea, ez dira zuriak edo beltzak, tartekoak baizik, eta gai batzuk beste batzuk baino labainagoak dira, irristakorrak, heltzen edo erabakitzen zailagoak. Kontubatzuetan, balantzaren bi aldeei bereziki begiratu beharra dago, aldeko eta aurkako arrazoiei; alegia, irizpide orokorrak ez ezik, kasu bakoitzaren berezitasunak ere kontuan izan behar dira. Eta, gure ustez, Torreagaren kasua nahiko berezia zen.

Hitzarmen horren ondorioz, Zumaiako herriaren ingurugiroa asko hobetzea lortuko zen, eta Zumaiarren bizi kalitatea ere hobetuko zen. Baina gehine irabazten zuena Torreaga zen, bestela ez zen bertatik mugituko, orain arte bezala, lasai eta eroso, gure herria zerritzen jarraituko zuen. Torreagak mugitzeko beharra izan duenean mugitu da, ez Zumaiarrei inongo mesederik egiteko, eta urte mordo batean, zikintzen egon ondoren, zikintzen uzteagatik, saria eman behar izan zitzaion. Sari berdina jasoko du Urpek, baina badirudi, Urpek ez duela inongo betebeharririk izango. Badirudi Zumaiaren geratuko direla, badirudi beraien jardura enpresarialak aurrera joko duela, baina Torreagakin ez bezala, Urperekin ez dago hitzarmenik, eta gure ustez, komenigarria litzateke hori ere ondo lotuta uztea. Torreaga beratik mugitu ahal izateko, gustatu ala ez, hori zen bidea, eta bide hori hartu genuen, ondo kostata.

Baina ordutik hona, negoziaketa ugari, aldaketa ugari, beti bezala batzuk onak eta beste batzuk txarrak izan dira. Orain dela gutxi, etxe bizitzaren kopurua % 20an igo behar zutela aipatu ziguten Hirigintza Batzordean, etxeen forma, hamar aldiz aldatu dizkigute, ibaira hurbildu zaizkigu etxebizitzak, azken finean erabaki pilo bat, gai pilo bat negoziatu dira, eta beti bezala gu negoziaketa horietatik kanpo utzi gaituzte. Negoziaketek zer eman duten aurkezten digute, eta guri hori onartzea bakarrik eskatzen digute.

Honekin ez dugu esan nahi, guk negoziaketan parte hartu bagenu zerbiat hobea lortuko genuenik, agian gu ere negoziaketa prozesuan egonda, gaur hemen, parametro berdinetan hitz egiten egongo ginateke, hartuko genuen akordioa hauxe bera izango litzateke, baina ziurra dena zera da, negoziaketa prozesua, gardena eta parte hartzailea izango zela, eta horrela guk, zuek emandako erreferentziaz erabakirik jartzera ez ginateke, beharturik egongo, guk zuek bezala lehen eskuko informazioa nahi dugu. Gure iritzia, prozesu guztian kontuan hartzea nahi dugu, eta ez prozesuaren bukaeraren soilik.

Beraz arrazoi hauek direla medio, abstenitu egingo gara.

PSOeko ordezkariak dio, alde onak eta txarrak balantzan jarrita, balantzea positiboa dela, eta, beraz, ordezkatzeko duen alderdiak aldeko botoa emango duela.

Bestela, ingurumena eta hirigintza hobetzeko proiektu bat geldiaraziko lukete. Eta hirigintza-tresnak ahalik azkarren tramitatzea interesgarria da.

Etxebizitzaren kopurua % 20 gehituz sortutako babes ofizialeko bederatzi etxebizitzari dagokienez, gure iritziz (etxebizitza libreen tartean sartzea teknikoki zaila denez) etxebizitza libre gisa eraiki eta udalak babes

ofizialeko etxebizitzaren prezioan erosi beharko lituzke, birralojatzeko, gizarte-beharretarako eta Udalaren edo Eusko Jaurlaritzaren bidez alokatzeko. Eta, bestela, beste esparru batera lekualdatzeko hitzarmena egin, besteekin egin den moduan.

EAK dio operazioak alde onak eta txarrak dituela, hain zuzen ere. Positiboa da lurren jabeek lurak lagatzea, saihebidetako loturei ahalik eta konponbide egokiena emateko.

Negatiboa da babes ofizialeko 40 etxebizitza Puntanuetara lekualdatzea; esparruan bertan egin beharko lirake.

Gehitzetik sortutako babes ofizialeko bederatzi etxebizitzetara dagokienez, PSOEk egindako proposamena onartzen dugu.

Horregatik guztiagatik, EA talde politikoa abstenitu egingo da.

EB-Berdeak taldeak testu hau irakurri du:

TORREAGAKO FITXAREN ALDAKETA

Ados gaude gune horretan etxebizitzak egitearekin, etxebizitza pribatuaren merkatuan izango duen eraginagatik.

Garaierari eta profil berriei buruzko aldaketak ere onartzen ditugu, zenbait egoeratan –TORREAGAKO kasuan, esate baterako– konponbideak aurkitzeko, malguak izan behar dugula uste baitugu.

Baina ezin dugu onartu derrigorrezko babes ofizialeko etxebizitzak lekualdatzea, gune hartako jardura ekonomikoak lekualdatzea errazteko delakoan.

Irizpide klasista zaharkituei erantzuten diola iruditzen zaigu, eta udalak zuzendu egin behar lituzke horrelako jarrerak, areagotu beharrean.

Bestalde, 12. HA fitxa aldatu egin behar litzatekeela uste dugu, 12.1 EURI aldeko ebazpena eman ahal izateko.

Gainera, BASUSTAKO guneari buruz ere iritzi bera dugu; gure ustez, erreserba-gunea izan ordez, GUNE URBANIZAGARRIA izan beharko luke, beharrezkoak diren etxebizitzak berehala egiteko.

Badakigu legez ezin dela egin, eta horrek erakusten du, hain zuzen, babes ofizialeko etxebizitzekiko udal-gobernuaren argudioa iruzur hutsa dela. Izan ere, bestela, arau subsidiarioetan ERRESERBA gisa

sailkatutakoa ez zen URBANIZAGARRI gisa aurkeztuko AURRERAPENEAN.

Azaldutako argudioei jarraituz, EB-Berdeak taldeak aurkako botoa emango du.

Alkate-presidenteak erantzun du negoziazio guztietan zuria eta beltza egoten direla jokoan, eta, azkenean, grisa lortzen dela.

Torreagaren esparruan, bi helburu garrantzitsu lortu direla nabarmendu du:

1.-Ingurumena hobetzea. Etengabeko kontaminazio-foku bat handik ateratzea eta, aldi berean, eskualdeko lanpostuei eustea lortu dugu, eta ez da gutxi.

Urperekin ez dago hitzarmenik oraingoz, baina badakigu ez dutela Zumaiatik alde egin nahi eta, agian, Korta poligonoan kokatu dira.

2.- Saihesbidearen ibilbidea hobetzea: zenbait lekutan loturak egin beharrean, eragin txikiagoko lotunea izango dugu, inguruarekin atsegina, eraikina garaiagoa izateari eta ibaitik hurbilago egoteari esker.

Ondoren, bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 13

Aldeko botoak: 7 (PNV, 5; PSOE, 2)

Aurkako botoak: 1, EB-Berdeak.

Abstentzioak: 5 (IZUSTARRI, 3; EA, 2).

Udalbatzako kideen legezko gehiengo absolutuaren quoruma betez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren bikoaren, 47.3 i) artikuluan ezarritakoari jarraituz,

ERABAKI DUTE:

1. ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LEHENENGO ALDAKETARI, 12. HA (12.2 EU) TORREAGAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (PUNTANUETA II)

LEKUALDATZEARI, 12.2 EUko (TORREAGA) BERRORDENAKETARI ETA HIRIGINTZA ARAUEN 34.3 ARTIKULUAREN ZEHAZTAPENEI BURUZKOARI, HASIERAKO ONARPENA ematea, udal-teknikariaren txostenean adierazitakori jarraituz (akordioaren azalpenezko zatian idatzita jasota dago).

2.-HILABETEZ jendaurrean jartzea, eta probintziako aldizkari ofizialean eta gehien saltzen den egunkarietako batean iragartzea. Tarte horretan, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku egongo da, eta alegazioak egiteko aukera izango da.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko zortziak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA